

BALDINTZAK

- Zarauzko Udalak datuak tratatzen ditu herritarrek egindako eskabideei buruzko espedienteak kudeatzeko; eta hori, hauen arabera: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen; eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Arloan eskumenak dituzten beste Administrazio Publiko batzuei komunikatu ahalko zaizkie datu pertsonalak. Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko. Horretarako, komunikazio bat bidaliko du Udalaren helbidera edo dbo-dpd@zarautz.eus helbide elektronikora; Datuak Babesteko Politikari buruzko informazioa zabal dezake www.zarautz.eus helbidean.
- Adingabearen guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrak baimena ematen du datu pertsonalak tratatzeko, aurrez adierazitako helburuekin.
- Ordainketak hilerro eta automatikoki egingo dira, harpidetuak baja ematen ez duen bitartean. Baja dagokion inprimakiaren bitartez gauzatu behar da, hilaren 25a baino lehen, eta ondorioa izango du eskatu eta hurrengo hilabetean.
- Erabiltzaileak bere gain hartzen du jardueraren ondoriozko lesioen eta kalteen arriskua.
- Sinatzaileak plaza lortzen badu, ikastaroaren alta AUTOMATIKOA onartzen du.
- Udalak ikastaroak bertan behera uzteko ahalmena izango du.
- Erabiltzaileak bere datuetan datuetan gertatzen diren aldaketan berri eman beharko dio Zarauzko udalari, dagokion inprimakia betez.
- Udal ikastaroak euskaraz izango dira, Zarauzko udalak euskara sustatzeko erabakia hartua duelako, eta, ondorioz, arlo guztietan euskaraz funtzionatuko duelako.

Era berean, sinatzaileak honako hauek adierazten ditu

- Egiazkoak direla eskaera honetan azaltzen diren datuak eta baimena ematen diola Zarauzko Udalari horiek egiaztatu ahal izateko.
- Indarrean dauden araudiak ulertzen eta ONARTZEN dituela.
- Emandako kontu korrontearen titularra dela eta/edo kontua erabiltzeko baimena duela. Baimena ematen duela Kirol Departamentuaren ordainagiriak bere banku-kontuan kargatzeko.
- Baimena ematen duela kirol informazioa jasotzeko.